



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, URNIETAKO UDALAREN ETA BERE SOZIJETATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2001.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak hala eskatuta, Urnietako Udalaren eta bere sozietateen 2001eko urtealdiaren fiskalizazioa mamitu du. Txostena HKEEren Osoko kideen gehiengoz oniritzi da.

Txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu alor hauetan: aurrekontu, zorpidetza eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, ondasun eta zerbitzuak, dirulaguntzen emakida eta sarrerak; kontularitzakoak, berriz, Kontu Orokorra mamitzeari dagokionez, eta finantzarioak.

Udalan bertan legezkontasuna betetzeari buruzko iritzia positiboa da, iritzi orokor honekiko hainbat salbuespen daudela: 33 mila euroko gastuak egin izana aurrekontu izendapenik gabe; onartutako Lanpostuen Zerrendan lanpostu bakoitzaren destino osagarria ez adierazi izana; 280 mila euroko mila euroko zenbateko luzatzea; eta azkenik, aprobetxamenduen baten kostu bidezko lagapena eragin duen hirigintzako hitzarmen batean, ez dagoela jasotako finkaren balioa neurtuko duen adituen txostenik, ezta idazkari-artekariaren derrigorrezko txostenik ere.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

espedientea bideratu gabe kontratuak egin izana; 127 kontratu bat bidegabe adierazi da hirigintzako ordainketa modura finka

Kulturnieta, SA sozietateari dagokionez, iritzia positiboa izanda ere, 309 mila euroko gastuak eragin dituzten hiru kontratutan publizitate eta/edo lehia printzipioak urratu direla azpimarratu da. Halaber, 2001eko urtealdian, Sarobe Kultur Zentroaren kudeatzaileak bateraezintasuneko jardura burutu duela ere jakinarazi da.

Urnietara Eraiki, S.A. sozietateari dagokionez, txostenak salbuespen modura barne hartzen du indarreko arautegia betetzeari dagokionez, 397 mila euroko gastua eragin duten bost esleipenetan ez dela publizitate printzipioa gorde.

Urnietatek sozietateari dagokionez, fiskalizazio datan publikoa ez dena, HKEEK adierazten du egindako eragiketen eta kontularitza erregistroen dokumentazio ezak ez duela uzten 2002ko urtealdiari dagozkion urteko kontuei buruzko iritzia ematen.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Txostenean zein den falta den informazioa zehazten da, besteak beste, BEZ aitortpenak, kontabilitateko liburu handiak, balioztaturiko ondasun zerrendak eta 855 mila euroko ordainagiriak. Berebat, saldoei dagokienez, hirugarrenei buruzko eta sozietatearekin lotutako hainbat eragiketari buruzko erantzunik ere ez dugu eskuratu.

Erakunde fiskalizatzaileak Urnietako Udalaren Kontu Orokorraren edukiari buruz duen iritzia aldekoa da, hainbat salbuespen azpimarratu dituela balantzeko higiezinduko kontuetan eta hainbat eragiketaren erregistroan aldeak, urtealdiaren emaitzan eragina dutenak, 126 mila eurotan gehituz. Beste zenbait doiketa fondo propioei dagozkie, 1,6 milioi eurotan behera egiten dutenak. Eragiketa hauen artean, Urnietatel, SARI egindako ondasunen salmenta daukagu.

Sociedad Kulturnieta, S.A.ren kontuei dagokienez, iritzia ere aldekoa izan da, errore bat azaleratu dela gastuak kontuetaratzekoan, 80 mila eurokoa, eta Aurreko Urtealdietako Emaitzetan eta Ibilgetu Materialaren Amortizazio Pilatuan eragina izan dezakeen dokumentazioa ez aurkeztu izana.

Urnietara Eraiki, S.A.  
erakunde fiskalizatzaileak  
gaineko iritzirik plazaratu,  
eskuratu eta horren egoera



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia  
Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

sozietateari dagokionez,  
ez du honen kontuen  
EZ baitu informaziorik  
zalantzazkoa baita.

Urnietatel, S.A.ren kontuei dagokienez, aurrez aipatu bezala, HKEEK ez du iritzirik eman.